

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,  
ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkeztu du araua aldatzeko ondoko proposamena, ulertzen baitugu hobariaren helburua izan behar duela, klima aldaketaren aurrean, bizitza eutsigarria egingo duten eta ingurumenaren zaintzarekin bat etorriko diren jarrerak eta bizimoduak sustatzea donostiarren artean, trantsizio ekologikoaren ildoarekin bat eginik:

Hau jasotzen du orain ordenantzak, 7. artikuluan (Hobariak): *Hobaria izango dute,*

*2.- Beroa edo argindarra ateratzeko eguzkiaren energiaz baliatzen diren sistemak jartzeko eraikuntza, instalazio edo obrek kuotaren %95eko hobaria izango dute, betiere, honetarako bada: etxeko ur beroa lortzeko, igerilekuen klimatizazio sistemak ordeztzeko edo 100 KW nominaletik beherako eguzki instalazio fotovoltaikoa ordeztzeko. Instalatzeko legezko betebeharririk ez dagoenean, beharrezko aurrekontu osoagatik emango da hobaria. Instalatzea derrigorrezkoa denean, araudia zorrotz betez instalazioa egiteko beharrezko aurrekontuaren eta ondoren azaltzen diren baldintzak betetzeko beharrezko aurrekontuaren arteko aldeari emango zaio hobaria.*

*Igerilekuak klimatizatzeko gutxieneko eguzki ekarpena: Araudian ezarritako urteko gutxieneko eguzki ekarpena gutxienez %25 handitzea eta igerilekuaren klimatizazio beharren %60 edo gehiago estaltzea.*

EH Bilduren proposamena:

**2.- Beroa edo argindarra ateratzeko eguzkiaren edo beste energia berriztagarri batzuen energiaz baliatzen diren sistemak jartzeko eraikuntza, instalazio edo obrek kuotaren %95eko hobaria izango dute, betiere, honetarako bada: etxeko ur beroa lortzeko, sare elektrikoari lotuta edo bereiz dauden guneak 100 KW nominaletik beherako elektrizitatez hornitzeko edo igerilekuetako urak arazteko sistemak ordeztzeko. Instalatzeko legezko betebeharririk ez dagoenean, beharrezko aurrekontu osoagatik emango da hobaria. Instalatzea derrigorrezkoa denean, araudia zorrotz betez instalazioa egiteko beharrezko aurrekontuaren eta ondoren azaltzen diren baldintzak betetzeko beharrezko aurrekontuaren arteko aldeari emango zaio hobaria.**

**Igerilekuko ura arazteko gutxieneko eguzki ekarpena: Araudian ezarritako urteko gutxieneko eguzki ekarpena gutxienez %25 handitzea eta argindar beharren %60 edo gehiago estaltzea.**

Donostian, 2021eko abuztuaren 3an.

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldeko bozeramailea